



EUSKARAREN AZTARNAK SARDINIAN?

Juan Martin Elexpuru

Saio eta Testigantza, 190

ISBN: 978-84-7681-994-4

2017. urtea / 368 orrialde

17x24 cm

27,00€

Euskara eta *Sardinia* hitzak elkarren ondoan ikusteak harridura sortuko dio bati baino gehiagori. Euskara eta paleosardiniera (erromatarrek isla konkistatu baino lehen Sardinian egiten zen hizkuntza) senide hurbilak izan daitezkeela da liburu honetan jorratzen den hipotesia. Ez da kontu berria. Vittorio Bertoldi hizkuntzalariak hainbat bat-etortze ikusi zituen duela ia ehun urte euskararen eta islako erromantzearen artean. Gerora hainbat izan dira gai honetan begiak jarri dituzten ikerleak. Dena dela, hil berria zaigun Eduardo Blasco Ferrer hizkuntzalari katalanak ekarri zuen iraultza: urtetako ikerketen ondorioz, toponimiari garrantzi handia emanda, oinarri sendoak jarri zizkion aipaturiko hipotesiari.

Liburu honetan sakondu eta zabaldu egiten da bide hori. Lehen parteak testuinguruan kokatu nahi du irakurlea. Bigarrenak, *gorosti/golosti* bezalako kointzidentzia lexikalak aztertu ondoren, toponimiari begiratzen dio, eta ia bost mila sarrerako korpus batean oinarrituta, islako geografian aurkitzen diren leku-izenak aztertzen ditu, etimologiari, dentsitateari eta abarri erreparatuz, harri eta zur utziko gaituzten mapez eta argazkiz lagunduta.

* * *



Filosofia eta Letretan lizentziatua eta Euskal Filologian doktorea. Idazlea eta itzultzailea. Nagusi zein haur literaturako hainbat liburu idatzi du. Itzuli ere bai zenbait, Moliereren *Tartufo* eta *Zekena* (2008) eta Makia-veloren *Printzea* (2008), esaterako.

Hizkuntza arloan *Bergara aldeko euskera* (1988) eta *Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak* (1997-2003) proiektuko lau liburukiak kudeatzeaz gain, *Bergara aldeko hiztegia* (2004) eta *Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak* (2009) idatzi ditu.

* * *

Juan Martin Elexpuru
(Ubera-Bergara, 1950)



948 326 535

soltxate@pamiela.com

www.pamiela.com